



Gipuzkoako Foru Aldundia

al Adimen Lehiakorra

2.- Nola egiten da?

2.6.- Alrako tresnak

1. Sarrera

Adimen lehiakorrak erakunde baten Berrikuntza Estrategian duen zeregina aztertzen du pilula honek. Ikusi daitekeenez, ALa input garrantzitsua da berrikuntza prozesua osatzen duten jarduera askotarako, izan ere, informazio garrantzitsua ematen dute teknologien, merkatuaren, produktuen eta aukeren gainean, besteak beste.




Tresnak

Gaur egun, merkatuan badira tresna eta baliabide ugari dohainik Adimen Lehiakorraren lanak erraztu eta automatizatzen dutenak. Tresna horiek erabilia, ALren zeregin asko sistematizatu daitezke, zeregin horietan denbora gutxiago behar izateko eta informazio gehiago hartzeko. Gainera, erraztu egiten dute ALa erakundearen maila guztietan zabaltzea. Pilula honek ALa egiten lagundu dezaketen bi tresna mota azaltzen ditu, eta tresnarik garrantzitsuenak (doakoak) aurkezten dizkigu.

2. Alrako tresnak eta baliabideak

Duten eginkizunaren arabera, tresnak hainbat kategoriatan taldekatu daitezke:



Adimen Lehiakorra

1.irudia: ALren prozesua




Aurkitu

RSS irakurgailuak: RSS kanalen bitartez informazioa jasotzeko moduak bideak zentralizatzen dituzten tresnak dira.

Markagailu sozialak: Web orriak gehitzen uzten dute, eta gaien arabera taldekatu ere bai.

Informazioa ateratzeko pentsatuta dauden tresnak: Web orri bateko informazioa automatikoki ateratzen uzten dute, web orriak RSS kanalik ez badu.



Iragazi

Iragazte tresnak: Analistak jasotzen duen informazioa gutxitzeko balio du, eta berarentzat interesgarria dena baino jaso dezan.



Partekatu

Edukiak ontzeko tresnak: Edukiak erakutsi eta beste erabiltzaileekin partekatzeko balio dute. Edukiak norberarenak zein beste webgune batzuetakoak izan daitezke.



Helarazi

Zabalpen tresnak: Eduki interesgarriak erakundeko zein erakundetik kanpoko agenteen artean zabaltzeko balio dute,

Kanpoko informazio iturriak identifikatu eta aukeratzeko, hainbat faktore hartu behar dira kontuan, esaterako, kalitatea, zenbat informazio ematen duten, informazioaren objektibotasuna eta fidagarritasuna, eta zenbateko maiztasunez eguneratzen duten informazioa.

Hona hemen kategoria bakoitzetik aukeratutako hainbat tresnaren ereduak. Asko gehiago daude, baina ezagunenak aukeratu dira.

RSS irakurgailuak

[Feedly](#)

Merkatuan dagoen RSS irakurgailurik ezagunena da. Oso erraza da eta interfaza atsegina du; horrek egin du bere erabilera jendearen artean zabaltzea, nahiz eta funtzioanaltasunei dagokienez beste batzuen atzetik egon. RSS edukien harpidetza egiten uzten du. Horretarako berak duen informazio iturrien bilatzailea erabil daiteke, edo monitorizatu nahi den URLa zuzenean sartu. Hainbat sare sozialekin konektatzeko aukera du, eta edukiak hainbat plataformetara bidaltzen uzten du. Mugikorretarako zein tabletetarako bertsioak ditu.

[Inoreader](#)

Feedly izenekoa baino gutxiago ezagutzen da; halere, hark baino funtzioanaltasun gehiago ditu. Feedly-k egiten duenaz gain, ekintzak automatikoki egiteko programatu daitezke; beste erabiltzaile batzuek tresna erabiltzen ari denak zer aukeratzeko duen ezagutzeko kanalak sortu daitezke; bundleak eskaintzen ditu (informazio iturriak gai jakin batzuen arabera taldekatuta, beste erabiltzaile batzuek eginda); alerten testu osoa ateratzen du...Hitz batean, ez da hain ikusgarria, baina, bai, berriz, eraginkorragoa.

Markagailu sozialak

[Reddit](#)

Markagailu sozialak eta albisteak gehitzeko tresnak batzen dituen webgune bat da reddit. Tresna horretan, webguneetarako estekak utzi ditzakete erabiltzaileek. Beste erabiltzaile batzuek esteka horien aurka edo alde bozka dezakete, eta horrela esteka batzuk beste batzuk baino nabarmenago ager daitezke.

[Delicious](#)

Web orrien markagailuak kudeatzeko tresna da Delicious, eta osagai social nabarmena du. Markagailuak gordetzen uzten du, aurretik nabigatzaileetan gordetzen baitziren, eta markagailu horiek etiketen bitartez kategorizatzea ere ahalbidetzen du. Horrez gain, aukera dago webguneak beste erabiltzaile batzuekin partekatzeko eta ikusteko ea zenbatek duten esteka bat gordeta Deliciousen.

Informazioa ateratzeko pentsatuta dauden tresnak

[Dapper](#)

Online tresna bat da Dapper, eta Webgune bateko datuak atera eta hainbat formatutan ematen uzten du. Datuak ateratze horri Web-scrapinga deitzen zaio. Interesgarria da, RSSrik ez duten web orrien RSSa sortzeko aukera ematen duelako. Sarritan erorita egon ohi da.

[Website-Watcher](#)

Web orriak, sare sozialak, fitxategiak, foroak eta onlinen dauden gaineko edukiak monitorizatzeko tresna bat da. Webgune batean gertatu diren aldaketak antzeman eta berreskuratzen ditu. Aldaketak erraz identifikatzeko, nabarmendu egiten ditu.

[Feedity](#)

Tresna honek automatikoki ateratzen ditu web orrien edukiak, eta ondoren RSS bihurtzen ditu. Horrela, kanal bat sortzen du, gero edozein RSS irakurgailutan txertatu ahal izateko. Jendeartean erabiltzen hasi zen Dapperren ordez.

[Page2rss](#)

Web orri baten gertatzen diren aldaketak monitorizatzeko tresna da. Web orriaren bertsio bat gordetzen du, eta egunera hara jotzen du ikusteko ea aldaketarik egon den. Aldaketarik egon bada, RSS bidez alerta bat bidaltzen du, aldaketa egon dela jakinarazteko.

Iragazte tresnak

[Yahoo Pipes](#)

Web tresna interaktiboa. Tresna horrekin edozeinek gehitu eta elikatu ditzake erraz eta merke RSS feed-ak. Feed pertsonalizatu bat ematen digu tresnak, hau da, erabiltzaileak eduki nahi duena baino ez duen feed bat edo bi feed edo gehiago elkartu eta iragazi ondoren ateratzen dena feed bakarrean jasotzen duena.

Edukiak ontzeko tresnak

[Scoop.it](#)

Erabiltzaileak sarean aurkitu edo berarentzat baliagarritzat jotzen duen edukia partekatzen uzten du sistema honek. Argitaratzeko sistema intuitiboa da eta erraz gestionatzekoa.

[Paper.ly](#)

Edukiak ontzeko tresna honek egunkari bat sortzeko aukera ematen du, erabiltzaileak berak ematen dizkion iturrietan oinarrituta. Egunkari bat baino gehiago sor daiteke, bai eta egunkariaren izena eta landuko diren gaiak pertsonalizatu ere. Horiek denak edozeinek ikus ditzake, eta URLrako esteka baten bidez partekatu ere bai.

Zabalpenerako tresnak

[Mailchimp](#)

Marketin lanetarako pentsatuta badago ere, edukiak posta elektronikoko bidez zabaltzeko ere balio du Mailchimpek. Jasotzaileen zerrendak kudeatzea ahalbidetzen du, bai eta bidalitako posta elektronikoko mezuen eragina ikustea ere.